

Abuztuaren 25ean
URTEAN ZEHARREKO 21. IGANDEA

Agurra

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Bizitza betea izateko eskaintza egiten digu Jesusek. Maitasunaren kultura sortu beharrean gaude: elkarrizketak, askatasunak eta errespetuak osatu behar du kultura hori, eta kristauok Jesusengan aurkitzen dugu horretarako indarra eta irakaspen argia.

Damu-otoitza

Presta gaitezen elkarbanatze bikain hau ospatzeko:

- Jesus Jauna, ontasunez entzuten diguzuna. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, errukiaren atea zabaltzen diguzuna. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gure Jainko eta salbatzailea zarena. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jauna, zure fededunen bihotzak gogo bateko egiten dituzu;
 egizu, zure herriak maita dezala Zuk agindua
 eta itxaron Zuk hitz emana;
 mundu aldakor honetan dauden bitartean
 gure bihotzek sendo iraun dezaten
 egiazko zoriona dagoen lekuan.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak bere herriari egindako promesak zoragarriak dira, eta Kristorengan irabaziak ditugu guztiak. Baina nola izan zoriontsu? Errazkeria utzi eta besteekin akordatur: Jesusen bidea urratuz.

Lehenengo irakurgaia (Is 66, 18-21)

Isaias profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Banatorkizue herri eta hizkuntza guztiak biltzera; etorriko dira, eta ikusiko dute nire aintza. Ezaugarri bat jarriko dut haien artean, eta haietatik bizirik gelditutako batzuk bidaliko ditut atzerrietara; Tarsisa eta Etiopiara, Libia, Masak, Tubal eta Greziara; nire berririk gabe, eta nire aintzarik ikusi gabe dauden urrutiko uharteetara. Eta nire aintza zabalduko dute atzerrietan. Atzerri guztietatik ekarriak izango dira, Jaunaren oparizat, zuen senide guztiak, zaldiz, gurdiz eta esku-aulkiz, mandoz eta dromedarioz, Jerusalemgo mendi santura —dio Jaunak—, Israelgo seme-alabek beren opariak jauretxera ontzi garbietan ekartzen dituzten bezala. Eta haienartetik aukeratuko ditut, bai apaiz, bai lebitar —Jaunak esana—».

Erantzun-salmoa (Sal 116, 1. 2)



Zo-az - te mun-du guz-ti - ra, e-ta ho-tse - gin be-rr-i o - na.



Goretsazue Jauna, atzerri guztiak,
Goraipa ezazue, herri guztiak. R/.

Sendotu baitu guregan bere maitasuna,
eta beti-betiko dago Haren leialtasuna. R/.

Bigarren irakurgaia (*Heb 12, 5-7. 11-13*)

Hebrearren egindako epistolatik

Senideok: Ahaztu egin zaizue, seme-alabei bezala ematen zaizuen burubide hau: «Ene seme, ez gaizki har Jaunaren zentzaldirik, eta ez galdu kemenik, Hark haserre egin dizula eta. Jaunak, maite duena zentzarazten du, eta semetzat daukana zigortzen».

Hartzazue hori zentzabiderako. Seme-alabekin bezala ari da Jaungoikoa zuekin. Izan ere, bai al da, aitak zentzarazten ez duen seme-alabarik?

Zentzabide guztiak orain pozgarri ez, baina mingarri dirudite; baina gero, haietan hezitakoei, fruitu baketsua ekartzen diete: zuzenbidea. Jaso itzazue, beraz, esku eroriak eta belaun ahulduak; ibili zuzen zeuen oinekin, herrena zainartuta ez dadin, sendatu baizik.

Aleluia (*Jn 6, 63b. 68b*)

Ni naiz bidea, egia eta bizia –dio Jaunak–;
ez doa inor Aitarengana
nire bitartez ez bada. R/.

Ebanjelioa (*Lk 13, 22-30*)**Homiliarako argibideak**

Ate estutik sartu

Norberaren eta besteen salbazioaren inguruko kezka euren bizia ebanjelioaren zerbitzura jartzera eraman ditu kristau asko historian zehar, lekaiameak eta apaizak bereziki. Bizitza unean-unean gozatzeko nahia ekarri du pentsamendu horrek, ordea, eta gero gerokoak.

Gutxi salbatuko diren beldurrak Jesusek aipatzen duen **ate estutik** sartzea ekarri du, galbidea zabala baita (*Lk 13,22-30*). Hala, sakrifizioa eta uko egitea eskatzen zuen kristautasun bat sortu zen, salbazioa ziurtatu ahal izateko. Jesusek atea itxi baino lehen sartzeko egin behar den ahalegina azpimarratzen du. Erreinu sartzeko hautatutako herrikoa izatea edo bataiatua egotea nahikoa dela pentsatzen dutenen konfiantza xaloa astindu nahi du beste ezeren gainetik. Bizitza osoan Hari otoitz egiten edo Harengatik sakrifikatzen eman ondoren, Jaunak ez aitortzearen desilusia har dezake batek.

Deigarriena da Erreinu atea paganoei zabaltzea, **bazter geratuta** ziruditenei (*Is 66,18-21*). Lehenengoak azkenak eta azkenak lehenengoak izango direla dioen iragarpena beteko da. Zer egin behar da, orduan? Giza segurtasun huts direnak utzi eta Erreinura bihurtu. Erreinua ezin da indarkeriarekin lortu, ezta gisa ahaleginarekin ere. Jainkoaren **dohaina** da. Hartzen jakin behar da, ordea. Horretarako, nor bere burua hustu behar du, jabetza titulu guztiak utzi eta Jainkoaren aurrean pobre agertu. Hark bakarrik salba gaitzakeela aitortu. Erreinua ez da errealitate abstraktu bat, baina. Jesusen pertsona da, Elizaren eta munduaren bizitzan presente egiten dena. Ate estutik sartzea Jesusi jarraitzea da, Hark bizi izandako balioak bizitzea eta haragitzea, heriotzara eta Piztuerara eraman zuten balioak, alegia.

Ez dago Piztuerarik, ez dago salbaziorik, Kristo gurutziltzatu helmuga duen komunitatea gabe. **Berme gizatiar hutsen** grazia

merkea bilatzea gure erruz ate itxiaren aurrean egotea da. Egia esan, Erreinuko ate zabalik dago beti. Kafkaren protagonistari bezala gertatuko zaigu, agian, Pragako katedralean sartu nahi eta ate itxita aurkitzea. Behin eta berriz bultzako dio ateari, baina ez da zabalduko. Denbora luzean atearekin borrokan aritu eta gero, ate kanporantz zabaltzen dela konturatuko da. Hori izan zen hautatutako herriaren akatsa, ate barrukoentzat bakarrik zabaltzen zela pentsatzea. Kanpoan dauden guztientzat edo guk kanpoan daudela uste duguentzat zabaltzen da ate.

Hautatutako herriari gertatutakoa gerta ez dakigun, Jaunak **goxogoxo zentzaten gaitu** (*Heb 12,5-13*). Jainkoaren Hitzak bide zuzenera itzultzen laguntzen digu, geure burua justifikatzeko irrikan desbideratzen garenean. Inori ez zaio gustatzen nahastu egin garela onartzea, batez ere, besteek ikusarazten badigute. Kasu honetan, Jainkoa, gure Aita, da gure pentsamenduak eta gure bideak zuzentzen saiatzen dena, konfiantza gugan jarri beharrean salbatuko gaituen bere grazian jar dezagun.

Eukaristiak gu guztiontzat du zabalik salbamenerako ate. Kristo da ate hori. Harengatik, libre dugu Aitaganako bidea. Eukaristian parte hartzea da Erreinuko banketeen Jainkoak denonganako maitasuna adierazteko gonbidatu dituen nazio guztiekin batera parte hartzea. Poztu gaitezen salbazioa unibertsala delako, eta eman diezazkiogun eskerrak Jainkoari, meritu propiorik gabe dei egin digulako.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Jaunari, gure otoitzak entzun ditzan eta lagun diezagun:

—Jainkoak errukiz zain ditzan Frantzisko Aita Santua, Jose Ignazio gure gotzaina eta gure elkarteetan ardura eta zerbitzua duten guztiak.

- Jainkoak eman diezaien lurra lantzen dutenei lanerako indarra, ikertzaileei adimena, ikasleei saiatzeko gogoia eta guztioi geurean irauteko leialtasuna.
- Jainkoak sufritzen duten guztien ezinak entzun ditzan, bereziki lanik gabe eta egoera larrian bizi diren guztienak.
- Jainkoak bere dohainez bete ditzan gure senide, adiskide eta ongile guztiak.

Jainko Jauna, gurutzearen ate estutik Zure erreinuko otorduan sartzera gonbidatzen dituzu gizakiak; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure Espirituaren indarra, Zure Semearen urratsei jarraituz bere aintzaren mahaian parte izan dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Eraman ezazu bere betera, Jauna,
zure errukizko salbamena;
eta egizu, Zuk lagundurik,
gauza guztietan zure gogoko izan gaitzela.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**